

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udal Etxebizitzak TEA****Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren iragarkia plantillako langile lan-kontratudun finkoko hiru lanpostu betetzeko.**

Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren iragarkia plantillako langile lan-kontratudun finkoko hiru lanpostu betetzeko. Lanpostu horiek honako hauek dira:

- Kontabilitate ataleko arduradunaren lanpostu bat ondorengo ezaugarri hauekin: 3. hizkuntza-eskakizun nahitaezkotasunik gabe, 2303-01 zuzkidura-zk., Sailkapen Profesionalaren 2. Taldean (A Taldea/A2 Azpitaldea) 24. maila 2021. urteko Lan Eskaintza Publikoari dagokiona, barneko sustapen-sistemaren eta lehiaketa-oposizioaren bidez.
- Adjudikazio ataleko arduradunaren lanpostu bat ondorengo ezaugarri hauekin: 3. hizkuntza-eskakizun nahitaezkotasunik gabe, 2104-01 zuzkidura-zk., Sailkapen Profesionalaren 2. Taldean (A Taldea/A2 Azpitaldea) 24. maila 2021. urteko Lan Eskaintza Publikoari dagokiona, barneko sustapen-sistemaren eta lehiaketa-oposizioaren bidez.
- Arkitekto Teknikoaren lanpostu bat ondorengo ezaugarri hauekin: euskarazko nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizuna, 2075-01 zuzkidura-zk., Sailkapen Profesionalaren 2. Taldean (A Taldea/A2 Azpitaldea) 23. maila 2021. urteko Lan Eskaintza Publikoari dagokiona, txanda askeko sistemaren eta lehiaketa-oposizioaren bidez.

Oinarri Espezifikoein batera hautaketa-prozesua arautuko duten Oinarri Orokorrak 2022ko maiatzaren 12ko 90 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, eta jarraian dauden hiru prozesuetako Oinarri Espezifikoak erakunde honetako Zuzendaritza Kontseiluaren erabakiz onetsi ziren 2022ko uztailaren 14an.

Bilbon, 2022ko abuztuaren 3an.—Zuzendari Nagusia, Eider Bilbao Aldayturriaga

**I. ERANSKINA****KONTABILITATE-ATALEKO ARDURADUNAREN LANPOSTUA BETETZEKO
DEIALDIAREN BEREZKO OINARRIAK****Lehenengoa. — Iragarritako plazak**

Oinarri espezifiko hauek, 2022ko maiatzaren 12ko 90. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Oinarri Orokorrekin batera, arautuko dute plantillako langile lan-kontratudun finkoaren hautaketa-prozesua, barneko sustapen-sistemaren eta lehiaketa-oposizioaren bidez. Helburua da Kontabilitate-Ataleko Arduradunaren lanpostu bat betetzea. Hona hemen ezaugarriak: 3. hizkuntza-eskakizuna derrigortasun datarik gabe, 2303-01 zuzkidura-zk., Sailkapen Profesionalaren 2. Taldean (A taldea/A2 Azpitaldea) 24. maila. 2021. urteko Lan Eskaintza Publikoari dagokio.

Bigarrena. — Iragarritako plazetarako baldintza espezifikoak

- a) Bilboko Udal Etxebizitzak TEaren Administariaren lanpostuan plantillako langile lan-kontratudun finkoa izatea.
- b) Administariaren lanpostuan bi urtez zerbitzu aktiboan jardutea.
- c) Gradu edo lizentziako unibertsitate-titulua izatea.
- d) Deitutako lanpostua eskuratzeko gainerako eskakizun orokorrak izatea.
- e) Diziiplina-espedientearen bidez zerbitzutik baztertuta ez egotea eta ebazpen judizialaren bidez enplegu edo kargu publikorako desgaitasun absoluturik edo berezirik ez izatea.
- f) Gaitasuna: lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea; horretarako, beharrezko gaitasun psikofisikoa izango du, eta bere gaitasunak edo desgaitasunak bateragarria izan beharko du iragarritako plazei dagokien lanpostuaren funtzio eta lanak egiteko. Hori udal-zerbitzu medikoek egiaztatuko dute, Oinarri Orokorretan aurreikusitakoarekin bat, eta zerbitzu medikoek egokitzen dituzten moldapenak egingo dira, hautagaien zeregin zehatzak eta adina aintzat hartuta.
- g) Indarreko oinarri orokorre jarraikiz, gainerako aplikazioko eskakizunak.
- h) Deialdian parte hartu nahi dutenek baldintza guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.
- i) Era berean, hautaketa-prozesuan eta plaza eskuratu arte mantenduko dira, f) apartatuan (gaitasun funtzionala) aipatutakoa izan ezik. Alderdi hori udal-zerbitzu medikoek ziurtatu beharko dute plantillako langile lan-kontratudun finko gisa plaza hartu baino lehen.

Hirugarrena. — Eskabideak**1. Aurkezteko modua eta tokia**

Eskaera bi modutan egin daiteke:

- a) Lehentasunez, eskabide elektronikoa: bete behar den eredu ofiziala eta jarraitu beharreko prozedura eskuragarri daude erakundearen webgunean, LEP atalean: (<https://opevmm.bilbao.eus>).
- b) Paperezko eskabidea: eskatzeko bete behar den eredu ofiziala III. eranskinean dago. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan (lehen, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua) aipatzen diren lekuetan aurkeztu ahal izango da.

Eskaerak egiteko bitarteko teknikoak, aholkularitza edo laguntza behar izanez gero, honako honekin jar daiteke harremanetan: Kalitate, Giza Baliabide eta Zerbitzu Orokorrren Arloa. Terminus eraikina. Nafarroa kalea 5, 5. solairua. Bilbo.



Eskabidean honako hau egin beharko du hautagaiak:

- a) Adierazi, haren erantzukizunpean, deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen dituela, eskabideak aurkezteko epearen amaiera-datari dagokionez.
- b) Hautaketa-probak egiteko hizkuntza adierazi (euskara edo gaztelania). Ez badu zehazten, ulertuko da proba guztiak gaztelaniaz egingo direla.

Udal Etxebizitzak erakundean norbanakoaren espedientean azaltzen diren merezimenduak prozesurako alegatutzat hartuko dira eta ofizioz egiaztatu nahiz erantsiko dira.

Erakundeko norbanakoaren espedientean ez dauden merezimenduak, ordea, lehiaketa-fasean baloratzeko, eskaeran alegatu beharko dira. Hortaz, hautagaiak nahikoa aipatu eta identifikatuko ditu.

Parte hartzeko eskakizunak eta alegatutako merezimenduak epaimahaiak edo Udal Etxebizitzak erakundeko Kalitate, Giza Baliabide eta Zerbitzu Orokorren Arloak berariaz eskatzen dituenean egiaztatu beharko dira.

Titulazioaren eta euskarazko hizkuntza-eskakizunaren betekizuna ez dira egiaztatuko, partaideak Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeari bitarteko telematikoen bidez titulu akademikoen datuak kontsultatu eta egiaztatzeko baimena ematen badio eta horiek dagokion erregistroan ageri badira.

Baimenik ematen ez bada, partaideak norberaren espedientean ez dauden frogagiriak aurkeztu beharko ditu.

2. Eskabideak aurkezteko epea

Eskaera 20 (hogei) egun balioduneko epean egin beharko da, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita. Larunbat, igande eta jaiegunak ez dira hartuko egun balioduntzat.

Laugarrena. — Epaimahaia

Epaimahaia honako hauek osatuko dute, indarreko legedian eta plantillako langile finkoen lanpostuak betetzeko Oinarri Orokor hauetan ezarritakoari jarraikiz: epaimahai-buru batek, idazkari batek eta gutxienez hiru mahaikidek. Horien artean Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat egon beharko da nahitaez.

Osaera nagusiki teknikoak izango da, eta espezialitate-printzipioak zehaztuko du; beraz, kide guztiek iragarritako plazak betetzeko eskatzen den maila akademikoko edo maila handiagoko titulazioa izan beharko dute, eta, gutxienez, kideen erdiek esperientzia egiaztatua izan beharko dute beteko den plazari dagokion ezagutza-arloan. Halaber, egokia ez dela justifikatu ezean, sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza izan beharko du.

Epaimahaiak adituen aholkuak jaso ahal izango ditu hautaketa-prozesuko proba guztietan edo batzuetan, baldin eta beren espezialitate teknikoen barruan badaude, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 31.4 artikulua xedatutakoaren babesean. Hala, aholkularitza eta lankidetzat teknikoak emango dute beren espezialitateen barruan hitzez, baina botorik gabe.

Bosgarrena. — Hautaketa-prozedura

Hautaketa barneko sustapen-txandan egingo da lehiaketa-oposizioaren sistemaren bidez. Ondoz ondo egingo dira oposizio-fasea eta lehiaketa-fasea. Lehenengoan bi ariketa egingo dira, eta bigarrenean oposizio-fasea gainditu duten pertsonen merezimenduak baloratzeko zaizkie.

A. Oposizio-fasea

Oposizio-fasean bi ariketa egin beharko dira halaberharrez, eta baztertzailak izango dira.

**Lehenengo ariketa**

Bi zati izango ditu, eta biak egun berean egingo dira. Epaimahaiak atsedenaldi bat emango die hautagaiei bi zatien artean.

Lehen zatian idatziz erantzun beharko da test motako 60 galderak osatutako galde-tegi bat. Galderak Epaimahaiak aukeratuko ditu aurretik argitaratutako galdera-sorta batetik; soilik 50 izango dira ebaluagarriak, eta 10 erreserbakoak. Erantzutako lau aukera egongo dira, eta soilik bat da zuzena, eranskinen programaren zati komuneko (1-18 gaiak) gaietan oinarrituta. Epaimahaiak gehieneko denbora-epea finkatuko du proba hasi aurretik.

Azken 10 galderak erreserba-galderak dira, eta soilik kontuan hartuko dira lehen 50 galderetako bat baliogabetzen bada.

Zati horri 0 eta 5 arteko puntuazioa emango zaio. Zati honetan erantzun zuzen bakoitzari puntu bat emango zaio; beraz, gehienez, 50 puntu lortu ahal dira, eta horren baliokidea 5 puntu dira amaierako puntuazioan.

Galdera okerre, erantzun gabekoek eta erantzun bikoitzek ez dute zigorrik izango.

Bigarren zatian, eranskinen gai-zerrendaren II. zatiko gaiak idatziz garatu beharko dira; horiek ausaz aukeratuko ditu Epaimahaiak ariketa egin baino lehen, eta gehieneko denbora-epea ere finkatuko du. Ariketaren zati hori egin aurretik, Epaimahaiak zuzentzeko irizpideak eta puntuatzeko modua jakinaraziko ditu.

Bigarren zatiari 0 eta 15 arteko puntuazioa emango zaio.

Ariketa horri 0 eta 20 arteko puntuazioa emango zaio, eta automatikoki probatik kanpo geldituko dira, gutxienez, 10 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

Bigarren ariketa

Epaimahaiak proposatutako kasu praktiko bat edo gehiago ebatzi beharko dira, Epaimahaiak finkatutako modu eta denboran; kasuek lotura izango dute eranskinen gai-zerrendarekin. Ariketa egin aurretik, Epaimahaiak zuzentzeko irizpideak eta puntuatzeko modua jakinaraziko ditu.

Ariketa horri 0 eta 20 arteko puntuazioa emango zaio, eta automatikoki probatik kanpo geldituko dira gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

Oposizio-faseko gehieneko puntuazioa: fase horretan, gehienez, 40 puntu lortu ahal dira.

Oposizio-faseko ariketetan, ikasi beharreko araudia deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoena izango da.

Abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuaren 8. artikuluen eta EFPLaren zazpi-garren xedapen gehigarriaren arabera, epaimahaiak ahalmena izango du deialdi hone-tako probak egiteko behar diren denbora- eta baliabide-egokitzapenak egiteko, desgaita-sunen bat egiaztatu duten eta eskabidean hala adierazi duten pertsonentzat, betiere ez bada probetako edukia indargabetzen edo eskatzen den nahikotasun-maila murrizten. Horrez gain, bermatu beharko da probak gainerako hautagaiekiko baldintza-berdintasu-nean egingo direla.

B. Lehiaketa-fasea

Lehiaketa-fasea oposizio-fasea amaitu ondoren hasiko da, eta fase hori gainditu du-ten hautagaiek egin ahal dute. Eskerak aurkezteko epean aipatu diren merezimen-duak, bai eta Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeko norbanakoaren espedientean ageri direnak ere, aztertu eta baloratuko dira. Ez dira baztertzailerak izango, eta oposizio-ko ariketak gainditzeko ez dira aintzat hartuko.

Lehiaketa-fasean, gehienez, 18 (hemezortzi) puntu lortu ahal izango dira.

Merezimenduak egiaztatzea. Alegatu nahi izanez gero, Udal Etxebizitzak erakun-deko norbanakoaren espedientean ez dauden merezimenduak baino ez dira egiaztatu beharko.



Merezimenduak baloratzea. Oinarri hauetan eta oinarri orokorretan zehaztutakoarekin bat etorritik egingo da, eta ezingo da beste edozein merezimendu baloratu, horiekiko desberdina bada.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu arteko merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Hona hemen balora daitezkeen merezimenduak:

- a) Antzinatasuna, gehienez, 8 (zortzi) puntu.
- 2 (A2) taldeko lanpostuetan administrazio publikoan emandako zerbitzuak direla eta, gehienez, 5 puntu emango dira: zerbitzu-urte edo sei hilabete edo hortik gorako zati bakoitzeko puntu bat.
 - 3 (C1) taldeko lanpostuetan administrazio publikoan emandako zerbitzuak direla eta, gehienez, 3 puntu emango dira: zerbitzu-urte oso edo 6 hilabetetik gorako zati bakoitzeko 0,50 puntu.

Urteak 365 egun ditu, eta 6 hilabetetik gorako zatia 183 egun edo gehiago izango dira.

- b) Euskara, gehienez, 6 (sei) puntu.

Modu honetan kalifikatuko da:

- 3. hizkuntza-eskakizuna edo Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Erki-dearen barruan C1 maila ziurtatzen duten tituluak edo ziurtagiriak: 6 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna edo Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Erki-dearen barruan B2 maila ziurtatzen duten tituluak edo ziurtagiriak: 4 puntu emango dira.
- 1. hizkuntza-eskakizuna edo Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Erki-dearen barruan B1 maila ziurtatzen duten tituluak edo ziurtagiriak: 2 puntu emango dira.

Ziurtagiriak egiaztatzea baimentzen ez duten hautagaiek dokumentazio egokia aurkeztu beharko dute.

- c) Prestakuntza, gehienez, 3 (hiru) puntu.

Edozein administrazio publiko edo administrazio horietako zuzenbide publikoko erakundek eta entitatek ala balotasun akademikoa duten tituluak emateko lege zehatzak dauden ikastetxeek antolatuta, irakatsi edo homologatu ostean, lanpostuaren berezko funtzioekin zerikusia duten ikastaroetan parte hartzea baloratuko da, betiere partaidetza-ziurtagiaren edo diplomaren bidez behar bezala ziurtatuta badaude. Gainera, dokumentu horietan halaberrez azalduko dira ikastordutak. Ikastaroak ez dira baloratuko titulazio akademikoa lortzeko ikasketa-planaren barruan sartuta egonez gero.

Era berean, TEAren Etengabeko Prestakuntza Planaren barruan irakatsitako ikastaroak baloratuko dira, lanpostua betetzeko interesekoak direlakoan, honako jakintzagai hauekin lotuta badaude:

Kontabilitate-ataleko arduradunaren lanposturako ikastaroak:

- Kontabilitatea.
- Aurrekontu-egonkortasuna eta jasangarritasun finantzarioa.
- Aurrekontuen likidazioa.
- Sektore Publikoko Kontratuen Legea.

- d) Hizkuntzak: gaztelaniaz bestelako Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eza-gutzea baloratuko da, zehaztutako mailen arabera, gehienez ere 1 punturekin, taula honekin bat:

- Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Erkidearen C1 maila: 1 puntu.
- Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Erkidearen B2 maila: 0,5 puntu.

Egiaztatutako hizkuntza bakoitzerako soilik ezagutza-mailarik handiena puntua-tuko da.

**Seigarrena.— Behin betiko sailkapena**

Hautaketa-prozesua osatzen duten proba eta merezimenduen kalifikazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak hautatutako pertsonen zerrenda argitaratuko du, oposizio-fasea gainditu duten pertsonen lortutako puntuak eta, hala badagokio, lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa batuta. Hautatutako pertsonen kopuruak ezingo du gainditu guztira iragarritako lanpostuen kopurua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 32. artikularekin bat. Halaber, Epaimahaiak dagokion izendapen-proposamena egingo du, zerrenda hori erakundearen Presidentetzara bidalita. Horrez gain, agintaritzak horri azken saioaren akta bidaliko dio, eta bertan jasoko dira, puntuazio-ordenaren arabera, bi faseak gainditu dituzten eta iragarritako lanpostuen kopurua gainditu duten pertsonak, lanpostua lortu duen norbait ez bada lanean hasten. Hala ere, azken zerrenda horretan sartzeak ez du beste eskubide edo aukerarik ematen, Oinarri Orokor hauen hamargarren oinarriak ezarritakoarekin bat.

Zazpigarrena.— Dokumentuak aurkeztea

Lanpostua eskuratzeko proposatutako pertsonen lanpostuan haste aldera ez dituzte dokumentuz justifikatu beharko baldintzak eta eskakizunak dagoeneko deialdian parte hartzeko egiaztatu badituzte.

Gainerako eskakizunak eta baloratutako merezimenduak ziurtatzeko dokumentazioa, jatorrizkoa edo behar bezala konpultsatua, baino ez dute aurkeztu beharko, dokumentazioa Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeko norbanakoaren espedientean izan ezean.

Gaitasun funtzionalari dagokionez, nolanahi ere, udal-zerbitzu medikoek emandako txostena eskatuko da.

Zortzigarrena.— Lanean hasteko proposamena

Hautagaien behin betiko kalifikazioa eta lehentasun-ordena zehazteko oposizio-fasean eta lehiaketa-fasean lortutako puntuak batuko dira.

Lanean hasteko proposamena interesdunari jakinaraziko zaio eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udal Etxebizitzak erakundearen iragarki-taulan eta TEAren webgunean argitaratuko da.

Bederatzigarrena.— Lanean hastea

Organo eskudunak lanean hasteko proposamena onetsi ondoren, hautagaiak lanean hasi beharko dira, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1 artikuluan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte.

Adierazitako epean lanean hasten ez diren pertsonen kasuan, inolako justifikaziorik gabe, ulertuko da karguari uko egin diotela, eta eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horretan, erakundeko presidenteak lanean hasteko proposamena egingo du oposizioko ariketak gainditu dituzten, oposizio- eta lehiaketa-fasean balorazio onena lortu duten eta uko-egite horren ondorioz iragarritako lanpostuen kopuruan sartzen diren hautagaien alde, Oinarri Espezifikoko hauen seigarren oinarriarekin bat.

Hamargarrena.— Aurka egiteko bideak

Oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri izango da Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren Zuzendaritza Kontseiluaren aurrean, hilabete bateko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabete epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

**I. ERANSKINA**
GAI KOMUNAK

1. gaia: Espainiako Konstituzioa (1978). Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
 2. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua. Euskadiren eskumenak: eskusiboak, legedia garatzekoak eta egikaritzekoak.
 3. gaia: Udalerrria. Biztanle-kopuru handiko udalerrien udal-antolakuntza (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. Titulua).
 4. gaia: Bilboko Udalaren antolakuntza. Araudi organikoak.
 5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzkoa.
 6. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Funtzionarioen eskubide eta betebeharrak. Ordainsariak. Diziplina-araubidea.
 7. gaia: 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzkoa.
 8. gaia: Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legea.
 9. gaia: Datuen babesa: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Zuzentaraua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
 10. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko Legea. Bilboko Udalaren IV. Udal Plana, Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa.
- Oharra: Berdintasunaren IV. Udal Planari (2014-2017) buruzko gaiaren edukia argitaratuta dago udal-webgunean (www.bilbao.eus >Udal>Udal sailak> Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaiak>).
11. gaia: Administrazio-kontratazioa. Motak: elementu eta subjektuak, objektua eta kontratu publikoen kausa. Kontratatzeko modua eta kontratistak hautatzeko sistemak. Kontratuen formalizazioa.
 12. gaia: Giza baliabideak arautzeko tresnak: lan-eskaintza publikoa, enplegu-planak eta beste arrazionalizazio-sistema batzuk.
 13. gaia: Toki-erakundeen zerbitzura dauden langileak: motak eta araubide juridikoa. Tokiko funtzio publikoa: tokiko funtzionario motak. Langilea antolatzekeo tresnak: plantillak eta lanpostu-zerrendak.
 14. gaia: Toki-erakundeen aurrekontu orokorra. Aurrekontu-egitura. Prestaketa eta onespina. Aurrekontuaren luzapena. Aurrekontua egikaritu eta likidatzea.
 15. gaia: Tokiko erakundeen ordenantza eta araudiak.
 16. gaia: Gorte Nagusiak. Herriaren defendatzailea. Arartekoa.
 17. gaia: 49/1960 Legea, uztailaren 21ekoa, Jabetza Horizontalari buruzkoa
 18. gaia: 29/1994 Legea, azaroaren 24koa, Hiri Errentamenduei buruzkoa.

**II. ERANSKINA****GAI ESPEZIFIKOAK**

19. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 4/2013 Dekretua, urtarrilaren 22koa, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen araudia onesten duena. Fakturen eskakizunak.

20. gaia: 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzkoa. Definizioa. Aurrekontu-printzipioak. Aurrekontuen edukia. Aurrekontu orokorren egitura. Egin eta onestea.

21. gaia: 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzkoa. Aurrekontu-kredituen araubide orokorra eta aldaketan araubidea. Aurrekontuak gauzatzea.

22. gaia: 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzkoa. Aurrekontuak likidatzea. Aurrekontuak luzatzea. Diruzaintza. Kontabilitatea. Kontrol kontu-hartzailea.

23. gaia: Bilboko Udaleko aurrekontua gauzatzeko araua. Aurrekontua kudeatu, garatu eta aplikatzea.

24. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Tokiko erakundeen aurrekontu-egitura. Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuari buruzko diru-sarreraren eta gastuen sailkapen ekonomikoa.

25. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko erakundeen kontabilitate-instrukzioa: tokiko kontabilitatearen printzipio orokorrak, kontabilitate-informazioko sistema.

26. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko erakundeen kontabilitate-instrukzioa: Sistemari sartu behar diren datuak eta sistematik lortu behar den informazioa.

27. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko administrazioari egokituta: Kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparrua.

28. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko administrazioari egokituta: Onetsi eta baloratzeko arauak.

29. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko administrazioari egokituta: Urteko kontuak.

30. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko administrazioari egokituta: Oinarrizko finantzaketa. Definizioak eta kontabilitate-harremanak.

31. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko administrazioari egokituta: Aktibo ez-arrunta. Definizioak eta kontabilitate-harremanak.

32. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko administrazioari egokituta: Izakinak eta bestelako aktiboak salmenta-egoeran. Definizioak eta kontabilitate-harremanak.

33. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko administrazioari egokituta: Hartzekodunak eta zordunak. Definizioak eta kontabilitate-harremanak.

34. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko administrazioari egokituta: Finantza-kontuak. Definizioak eta kontabilitate-harremanak.

35. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko administrazioari egokituta: Erosketak eta gastuak izaeraren arabera. Definizioak eta kontabilitate-harremanak.



36. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko administrazioari egokituta: Salmentak eta diru-sarrerak izaeraren arabera. Definizioak eta kontabilitate-harremanak.

37. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko administrazioari egokituta: Ondare garbiamen egotzitako gastuak eta diru-sarrerak. Definizioak eta kontabilitate-harremanak.

38. gaia: 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasun eta Jasangarritasun Finantzarioari buruzkoa: Aplikazio-eremua. Printzipio orokorrak.

39. gaia: 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasun eta Jasangarritasun Finantzarioari buruzkoa: Aurrekontu-egonkortasuna eta jasangarritasun finantzarioa: Egonkortasun finantzarioaren printzipioa antolatzea, gastuaren araua, jasangarritasun finantzarioaren printzipioa antolatzea, zor publikoaren ordainketaren erabateko lehentasuna.

40. gaia: 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasun eta Jasangarritasun Finantzarioari buruzkoa: Aurrekontu-kudeaketa: aurrekontuko superabitaren jomuga. Azken xedapenetatik hirugarrena: Foru-ogasunak.

41. gaia: 5/2013 Foru Araua, ekainaren 12koa, Bizkaiko Tokiko Erakundearen Aurrekontu Egonkortasun eta Jasangarritasun Finantzarioari buruzkoa.

42. gaia: 635/2014 Errege Dekretua, uztailaren 25ekoa, administrazio publikoen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia, bai eta apirilaren 27ko aurrekontu-egonkortasunaren eta jasangarritasun finantzarioaren 2/2012 Lege Organikoa aurreikusitako finantzaketa-araubideen baliabideak atxikitze baldintzak eta prozedurak ere garatzen dituen. Xedapen orokorrak. Kalkulatzeko metodologia. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko denboraldiaren publikotasuna: tokiko udalbatzek informazioa bidaltzea.

43. gaia: HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, 2/2012 Lege Organikoa aurrez ikusitako informazio-betebeharrak garatzen dituen: Xedapen orokorrak. Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeetako tokiko udalbatzetan informazioa bidali eta hartzeri behartuta dauden subjektuak. Informazioa bidaltzeko bitartekoak.

44. gaia: HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, 2/2012 Lege Organikoa aurrez ikusitako informazio-betebeharrak garatzen dituen: Tokiko udalbatzen esparruan informazioa emateko betebeharra. Xedapen gehigarri bakarra: Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Autonomia Erkidegoa.

45. gaia: 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Tokiko Ogasunak arautzen dituen: Aplikazio-eremua. Udal-entitateak: Baliabideen zerrenda, zuzenbide pribatuko diru-sarrerak. Zerga-egitatea eta tributu propioen subjektu pasiboak: zergak, tasak eta kontribuzio bereziak.

46. gaia: 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Tokiko Ogasunak arautzen dituen: Tributu itunduetan, itundu gabekoetan eta gainerako diru-sarreretan partaidetza. Dirulaguntzak. Prezio publikoak.

47. gaia: 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Tokiko Ogasunak arautzen dituen: Kreditu-eragiketak.

48. gaia: 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Tokiko Ogasunak arautzen dituen: Udalaz gaindiko erakundeak.

49. gaia: Tasak. Kontzeptua, zerga-egitatea, subjektu pasiboak, zenbatekoa eta sortzapena.

50. gaia: Prezio publikoak. Kontzeptua, betebeharpekoak, zenbatekoa eta sortzapena. Zehaztu eta finkatzea.

51. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 45/2015 Foru Dekretua, martxoaren 24koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko erakundeek emandako zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko irizpideak eta epeak ezartzen dituen. Tokiko zerbitzu publikoen benetako kostua kalkulatzeko.



52. gaia: Inbertsioak hautatzeko metodoak: Oraingo balioa, etorkizuneko balioa, BEGd, IBT, IBT aldatua, errentagarritasun-indizea eta berreskuratze-epea edo Pay Back. Inbertsioen bideragarritasun-planak.

53. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Legearen xedea eta aplikazio-eremua. Kontratu-motak mugatzea. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak.

54. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Sektore publikoko kontratazioaren arrazionaltasuna eta funtsa. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxieneko edukia. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma.

55. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Kontratuen baliogabetasun-araubidea eta kontratazioaren arloko errekurtsio berezia.

56. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Kontratuaren zatiak. Kontratazio-organoa.

57. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Enpresa-buruaren gaitasuna eta kaudimena. Kontratistaren ondorengotza.

58. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Objektua, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, balio zenbatetsia, kontratuaren prezioa eta kontratuaren berrikuspena. Sektore publikoko kontratueta eska daitezkeen bermeak.

59. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Merkatuko aldeztutako aurretiko kontsultak. Kontratazio-espeditentia prestatzea. Kontratazio-espeditentia kontratu txikietan. Presaz eta larrialdiz izapidetzea. Administrazio-klausulen agiriak.

60. gaia: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Jarduera publikoaren gardentasuna: Aplikazioko eremu subjektiboa, publikotasun aktiboa, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

**7. Merituak / Méritos**

Merituen zerrenda / Relacion de méritos	
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	

Leku zabalagoa behar izanez gero datu edota informazio gehigarri-rako, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud

8. Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación

Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SI o NO:

	Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.A.an indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak administrazio Publikoen beste erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera. Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales del O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao
	Baimena ematen diot Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.Ari, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, ziurtagiri, hizkuntza eskakizun eta gidabaimenen datuak kontsulta eta egiaztatu ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek esduragarri dauden heinean. Ez baduzu baimen hau ematen daozkion agiriak erantsi beharko dituzu. Autorizo al O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao a consultar y verificar por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, certificados, perfiles lingüísticos y permisos de conducción alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de no dar la autorización deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes.
	Baimena ematen diot Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.Ari nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan. Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que el O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo.

**LEGE-INFORMAZIOA**

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezientan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

INFORMACIÓN LEGAL

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

Jarri «X» laukitxoan / Marque con una «X» en el recuadro

ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO
--

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

Tokia / lugar

Urtea / año

Hilabetea / mes

Eguna / día

Sinadura / Firma

BILBOKO UDAL ETXEBIZITZAK T.E.A.
O.A.L. VIVIENDAS MUNICIPALES DE BILBAO



Datuen babesa	Protección de datos
Honako hau jakinarazten dizut, indarrean dagoen datuak babesteko araudian aurreikusitako ondorioetarako. Zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Bilbo-ko Udal Etxebizitzak T.E.A. da (Navarra Kalea, 1, 5. eta 6. solairua, 48001-Bilbo). Bilboko Udalean, Modernizazioko Idazkaritza Teknikoaren Sailatalaren burua da datuak babesteko ordezkaria (helbidea: Ernesto Erkoreka plaza, 1, 5. solairua, 48007 Bilbo). Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-prozesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako tituluak eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plazak betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea. Eman dituzun datuak kontserbatuko dira hautaketa-prozesuak irauten duen bitartean, sor litekeen lan-poltsa indarrean dagoen bitartean (lan-poltsa horretan sartzen bazara) eta administrazio honekin ezar litekeen zerbitzu-harremanak irauten duen bitartean. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPOETB) legezko manu bat (55. eta 56. artikulua) betetzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua den egiaztatzea ea betetzen dituzun funtzio publikoan sartzeko betekizunak eta hautaketa-prozesuan hori betetzeko behar diren gainerako inguruabarrak. EPOETBn (10. art.) ezarritako botere publiko bat egikaritzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua aurkeztu zaren hautaketa-prozesuaren ondorioz egin litezkeen lan-poltsak kudeatzea denean. Baimenik ematen ez baduzu aurretik adierazi diren arrazoieta oinarriturik zure datuak tratatzeko, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu. Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure datuak hautaketa-prozesuan komunikazioak egiteko tratatzeari dagokionez, horretarako berriaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenbakien datuak tratatzeko baimena ematearen mende. Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefona eta prestakuntza-maila) badaude sor litezkeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei, betiere jasota badago berriaz baimena eman duzula horretarako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan. Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetarako eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legitimatzerik kenduko baimena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agintaritzaren aurrean.	A los efectos previstos en la normativa vigente de protección de datos se le informa que: El Responsable del tratamiento de sus datos personales es el O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao (Calle Navarra, 1, 5.º y 6.ª planta, 48001-Bilbao). El Delegado de Protección de Datos del Ayuntamiento de Bilbao es la Jefatura de Subárea de Secretaría Técnica de Modernización, con dirección en la Plaza Ernesto Erkoreka, 1, 5.ª planta, 48007-Bilbao. Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correctamente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultados del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre. Los datos proporcionados se conservarán mientras dure el proceso selectivo, mientras esté vigente la bolsa de trabajo que pudiera crearse, en caso de acceder a ella, y mientras dure la relación de servicio que pudiera llegar a establecerse con esta Administración. La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de verificar los requisitos de acceso a la función pública y las circunstancias que determinen su desempeño en el proceso selectivo es el cumplimiento de un mandato legal contenido en el TREBEP (arts. 55 y 56). La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de gestionar las posibles bolsas de trabajo resultantes del proceso selectivo al que usted aspira es el ejercicio de un poder público recogido en el TREBEP (artículo 10). De no prestar el consentimiento para el tratamiento de sus datos basado en los antedichos motivos, no será posible la participación en el correspondiente proceso selectivo. La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones durante el proceso selectivo es su consentimiento expreso a tal efecto. La participación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supeditadas a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono. Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nombre y apellidos, DNI, domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos. Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el consentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.

**ADJUDIKAZIO-ATALEKO ARDURADUNAREN LANPOSTUA BETETZEKO
DEIALDIAREN BEREZKO OINARRIAK****Lehenengoa. — Iragarritako plazak**

Oinarri espezifiko hauek, 2022ko maiatzaren 12ko 90. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Oinarri Orokorrekin batera, arautuko dute plantillako langile lan-kontratudun finkoaren hautaketa-prozesua, barneko sustapen-sistemaren eta lehiaketa-oposizioaren bidez. Helburua da Adjudikazio-Ataleko Arduradunaren lanpostu bat betetzea. Hona hemen ezaugarriak: 3. hizkuntza-eskakizuna derrigortasun datarik gabe, 2104-01 zuzkidura-zk., Sailkapen Profesionalaren 2. Taldean (A taldea/A2 Azpitaldea) 24. maila. 2021. urteko Lan Eskaintza Publikoari dagokio.

Bigarrena. — Iragarritako plazetarako baldintza espezifikoak

- Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren Administariaren lanpostuan plantillako langile lan-kontratudun finkoa izatea.
- Administariaren lanpostuan bi urtez zerbitzu aktiboan jardutea.
- Graduko edo lizentziako unibertsitate-titulua izatea.
- Deitutako lanpostua eskuratzeko gainerako eskakizun orokorrak izatea.
- Diziplina-espedientearen bidez zerbitzutik baztertuta ez egotea eta ebazpen judizialaren bidez enplegu edo kargu publikorako desgaitasun absoluturik edo berezirik ez izatea.
- Gaitasuna: lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea; horretarako, beharrezko gaitasun psikofisikoa izango du, eta bere gaitasunak edo desgaitasunak bateragarria izan beharko du iragarritako plazei dagokien lanpostuaren funtzio eta lanak egiteko. Hori udal-zerbitzu medikoek egiaztatuko dute, Oinarri Orokorretan aurreikusitakoarekin bat, eta zerbitzu medikoek egokitzen jotzen dituzten moldapenak egingo dira, hautagaien zeregin zehatzak eta adina aintzat hartuta.
- Indarreko oinarri orokorre jarraikiz, gainerako aplikazioko eskakizunak.

Deialdian parte hartu nahi dutenek baldintza guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.

Era berean, hautaketa-prozesuan eta plaza eskuratu arte mantenduko dira, f) aparatuan (gaitasun funtzionala) aipatutakoa izan ezik. Alderdi hori udal-zerbitzu medikoek ziurtatu beharko dute plantillako langile lan-kontratudun finko gisa plaza hartu baino lehen.

Hirugarrena. — Eskabideak**1. Aurkezteko modua eta tokia**

Eskaera bi modutan egin daiteke:

- Lehentasunez, eskabide elektronikoa: bete behar den eredu ofiziala eta jarraitu beharreko prozedura eskuragarri daude erakundearen webgunean, LEP atalean: (<https://opevmm.bilbao.eus>).
- Paperezko eskabidea: eskatzeko bete behar den eredu ofiziala III. eranskinean dago. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan (lehen, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua) aipatzen diren lekuetan aurkeztu ahal izango da.

Eskaerak egiteko bitarteko teknikoak, aholkularitza edo laguntza behar izanez gero, honako honekin jar daiteke harremanetan: Kalitate, Giza Baliabide eta Zerbitzu Orokorren Arloa. Terminus eraikina. Nafarroa kalea 5, 5. solairua. Bilbo.

Eskabidean honako hau egin beharko du hautagaiak:

- Adierazi, haren erantzukizunpean, deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen dituela, eskabideak aurkezteko epearen amaiera-datari dagokionez.



- b) Hautaketa-probak egiteko hizkuntza adierazi (euskara edo gaztelania). Ez badu zehazten, ulertuko da proba guztiak gaztelaniaz egingo direla.

Udal Etxebizitzak erakundean norbanakoaren espedientean azaltzen diren merezimenduak prozesurako alegatutzat hartuko dira eta ofizioz egiaztatu nahiz erantsiko dira.

Erakundeko norbanakoaren espedientean ez dauden merezimenduak, ordea, lehiaketa-fasean baloratzeko, eskaeran alegatu beharko dira. Hortaz, hautagaiak nahikoa aipatu eta identifikatuko ditu.

Parte hartzeko eskakizunak eta alegatutako merezimenduak epaimahaiak edo Udal Etxebizitzak erakundeko Kalitate, Giza Baliabide eta Zerbitzu Orokorren Arloak berariaz eskatzen dituenean egiaztatu beharko dira.

Titulazioaren eta euskarazko hizkuntza-eskakizunaren betekizuna ez dira egiaztatuko, partaideak Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeari bitarteko telematikoen bidez titulu akademikoen datuak kontsultatu eta egiaztatzeko baimena ematen badio eta horiek dagokion erregistroan ageri badira.

Baimenik ematen ez bada, partaideak norberaren espedientean ez dauden frogagiriak aurkeztu beharko ditu.

2. Eskabideak aurkezteko epea

Eskaera 20 (hogei) egun balioduneko epean egin beharko da, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita. Larunbat, igande eta jaiegunak ez dira hartuko egun balioduntzat.

Laugarrena. — Epaimahaia

Epaimahaia honako hauek osatuko dute, indarreko legedian eta plantillako langile finkoen lanpostuak betetzeko Oinarri Orokor hauek ezarritakoari jarraikiz: epaimahai-buru batek, idazkari batek eta gutxienez hiru mahaikidek. Horien artean Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat egon beharko da nahitaez.

Osaera nagusiki teknikoa izango da, eta espezialitate-printzipioak zehaztuko du; beraz, kide guztiek iragarritako plazak betetzeko eskatzen den maila akademikoko edo maila handiagoko titulazioa izan beharko dute, eta, gutxienez, kideen erdiek esperientzia egiaztatua izan beharko dute beteko den plazari dagokion ezagutza-arloan. Halaber, egokia ez dela justifikatu ezean, sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza izan beharko du.

Epaimahaiak adituen aholkuak jaso ahal izango ditu hautaketa-prozesuko proba guztietan edo batzuetan, baldin eta beren espezialitate teknikoen barruan badaude, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 31.4 artikuluko xedatutakoaren babesean. Hala, aholkularitza eta lankidetzat teknikoa emango dute beren espezialitateen barruan hitzez, baina botorik gabe.

Bosgarrena. — Hautaketa-prozedura

Hautaketa barneko sustapen-txandan egingo da lehiaketa-oposizioaren sistemaren bidez. Ondo ondo egingo dira oposizio-fasea eta lehiaketa-fasea. Lehenengoan bi ariketa egingo dira, eta bigarrenean oposizio-fasea gainditu duten pertsonen merezimenduak baloratzeko zaizkie.

A. Oposizio-fasea

Oposizio-fasean bi ariketa egin beharko dira halaberharrez, eta baztertzailak izango dira.

Lehen ariketa

Bi zati izango ditu, eta biak egun berean egingo dira. Epaimahaiak atsedenaldira bat emango die hautagaiei bi zatien artean.

Lehen zatian idatziz erantzun beharko da test motako 60 galderak osatutako galdegi bat. Galderak Epaimahaiak aukeratuko ditu aurretik argitaratutako galdera-sorta



batetik; soilik 50 izango dira ebaluagarriak, eta 10 erreserbakoak. Erantzuteko lau aukera egongo dira, eta soilik bat da zuzena, eranskineko programaren zati komuneko (1-18 gaiak) gaitan oinarrituta. Epaimahaiak gehieneko denbora-epea finkatuko du proba hasi aurretik.

Azken 10 galderak erreserba-galderak dira, eta soilik kontuan hartuko dira lehen 50 galderetako bat baliogabetzen bada.

Zati horri 0 eta 5 arteko puntuazioa emango zaio. Zati honetan erantzun zuzen bakoitzari puntu bat emango zaio; beraz, gehienez, 50 puntu lortu ahalko dira, eta horren baliokidea 5 puntu dira amaierako puntuazioan.

Galdera okerre, erantzun gabekoek eta erantzun bikoitzek ez dute zigorrik izango.

Bigarren zatian, eranskineko gai-zerrendaren II. zatiko gaiak idatziz garatu beharko dira; horiek ausaz aukeratuko ditu Epaimahaiak ariketa egin baino lehen, eta gehieneko denbora-epea ere finkatuko du. Ariketaren zati hori egin aurretik, Epaimahaiak zuzentzeko irizpideak eta puntuatzeko modua jakinaraziko ditu.

Bigarren zatiari 0 eta 15 arteko puntuazioa emango zaio.

Ariketa horri 0 eta 20 arteko puntuazioa emango zaio, eta automatikoki probatik kanpo geldituko dira, gutxienez, 10 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

Bigarren ariketa

Epaimahaiak proposatutako kasu praktiko bat edo gehiago ebatzi beharko dira, Epaimahaiak finkatutako modu eta denboran; kasuek lotura izango dute eranskineko gai-zerrendarekin. Ariketa egin aurretik, Epaimahaiak zuzentzeko irizpideak eta puntuatzeko modua jakinaraziko ditu.

Ariketa horri 0 eta 20 arteko puntuazioa emango zaio, eta automatikoki probatik kanpo geldituko dira gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

Oposizio-faseko gehieneko puntuazioa: fase horretan, gehienez, 40 puntu lortu ahal dira.

Oposizio-faseko ariketetan, ikasi beharreko araudia deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoena izango da.

Abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuaren 8. artikulua eta EFPLaren zazpi-garren xedapen gehigarriaren arabera, epaimahaiak ahalmena izango du deialdi honetako probak egiteko behar diren denbora- eta baliabide-egokitzapenak egiteko, desgaitasunen bat egiaztatu duten eta eskabidean hala adierazi duten pertsonentzat, betiere ez bada probetako edukia indargabetzen edo eskatzen den nahikotasun-maila murrizten. Horrez gain, bermatu beharko da probak gainerako hautagaiekiko baldintza-berdintasunean egingo direla.

B. Lehiaketa-fasea

Lehiaketa-fasea oposizio-fasea amaitu ondoren hasiko da, eta fase hori gainditu duten hautagaiek egin ahalko dute. Eskaerak aurkezteko epean aipatu diren merezimenduak, bai eta Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeko norbanakoaren espedientean ageri direnak ere, aztertu eta baloratuko dira. Ez dira baztertzailerak izango, eta oposizioko ariketak gainditzeko ez dira aintzat hartuko.

Lehiaketa-fasean, gehienez, 18 (hemezortzi) puntu lortu ahal izango dira.

Merezimenduak egiaztatzea. Alegatu nahi izanez gero, Udal Etxebizitzak erakundeko norbanakoaren espedientean ez dauden merezimenduak baino ez dira egiaztatu beharko.

Merezimenduak baloratzea. Oinarri hauetan eta oinarri orokorretan zehaztutakoarekin bat etorritik egingo da, eta ezingo da beste edozein merezimendu baloratu, horiekiko desberdina bada.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu arteko merezimenduak bakarrik baloratuko dira.



Hona hemen balora daitezkeen merezimenduak:

- a) Antzinasuna, gehienez, 8 (zortzi) puntu.
- 2 (A2) taldeko lanpostuetan administrazio publikoan emandako zerbitzuak direla eta, gehienez, 5 puntu emango dira: zerbitzu-urte edo sei hilabete edo hortik gorako zati bakoitzeko puntu bat.
 - 3 (C1) taldeko lanpostuetan administrazio publikoan emandako zerbitzuak direla eta, gehienez, 3 puntu emango dira: zerbitzu-urte oso edo 6 hilabetetik gorako zati bakoitzeko 0,50 puntu.
- Urteak 365 egun ditu, eta 6 hilabetetik gorako zatia 183 egun edo gehiago izango dira.
- b) Euskara, gehienez, 6 (sei) puntu.
- Modu honetan kalifikatuko da:
- 3. hizkuntza-eskakizuna edo Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Erki-dearen barruan C1 maila ziurtatzen duten tituluak edo ziurtagiriak: 6 puntu.
 - 2. hizkuntza-eskakizuna edo Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Erki-dearen barruan B2 maila ziurtatzen duten tituluak edo ziurtagiriak: 4 puntu emango dira.
 - 1. hizkuntza-eskakizuna edo Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Erki-dearen barruan B1 maila ziurtatzen duten tituluak edo ziurtagiriak: 2 puntu emango dira.
- Ziurtagiriak egiaztatzea baimentzen ez duten hautagaiek dokumentazio egokia aurkeztu beharko dute.
- c) Prestakuntza, gehienez, 3 (hiru) puntu.
- Edozein administrazio publikok edo administrazio horietako zuzenbide publikoko erakundek eta entitatek ala baliotasun akademikoa duten tituluak emateko legez gaituta dauden ikastetxeek antolatu, irakatsi edo homologatu ostean, lanpostuaren berezko funtzioekin zerikusia duten ikastaroetan parte hartzea baloratuko da, betiere partaidetza-ziurtagiriaren edo diplomaren bidez behar bezala ziurtatuta badaude. Gainera, dokumentu horietan halabeharrez azalduko dira ikastorduak.
- Ikastaroak ez dira baloratuko titulazio akademikoa lortzeko ikasketa-planaren barruan sartuta egonez gero.
- Era berean, TEAren Etengabeko Prestakuntza Planaren barruan irakatsitako ikastaroak baloratuko dira, lanpostua betetzeko intereseak direlakoan, honako jakintzagai hauekin lotuta badaude:
- Adjudikazio-ataleko arduradunaren lanposturako ikastaroak:
- Sektore publikoko kontratuen legea.
 - Administrazio elektronikoa eta administrazio-prozedura.
 - Bitarteko elektronikoen bidezko jarduketari buruzko araudia.
- Atal honetako ikastaro guztiei ordu bakoitzeko 0,05 puntu emango zaizkie.
- d) Hizkuntzak: gaztelaniaz bestelako Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eza-gutzea baloratuko da, zehaztutako mailen arabera, gehienez ere 1 punturekin, taula honekin bat:
- Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Erkidearen C1 maila: 1 puntu.
 - Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Erkidearen B2 maila: 0,5 puntu.
- Egiaztatutako hizkuntza bakoitzerako soilik ezagutza-mailarik handiena puntuatuko da.

Seigarrena. — Behin betiko sailkapena

Hautaketa-prozesua osatzen duten proba eta merezimenduen kalifikazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak hautatutako pertsonen zerrenda argitaratuko du, oposizio-fasea gainditu duten pertsonen lortutako puntuak eta, hala badagokio, lehiaketa-faseko mere-



zimenduen balorazioa batuta. Hautatutako pertsonen kopuruak ezingo du gainditu gutzira iragarritako lanpostuen kopurua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 32. artikularekin bat. Halaber, Epaimahaiak dagokion izendapen-proposamena egingo du, zerrenda hori erakundearen Presidentetzara bidalita. Horrez gain, agintaritza horri azken saioaren akta bidaliko dio, eta bertan jasoko dira, puntuazio-ordenaren arabera, bi faseak gainditu dituzten eta iragarritako lanpostuen kopurua gainditu duten pertsonak, lanpostua lortu duen norbait ez bada lanean hasten. Hala ere, azken zerrenda horretan sartzeak ez du beste eskubide edo aukerarik ematen, Oinarri Orokor hauen hamargarren oinarriak ezarritakoarekin bat.

Zazpigarrena. — Dokumentuak aurkeztea

Lanpostua eskuratzeko proposatutako pertsonen lanpostuan haste aldera ez dituzte dokumentuz justifikatu beharko baldintzak eta eskakizunak dagoeneko deialdian parte hartzeko egiaztatu badituzte.

Gainerako eskakizunak eta baloratutako merezimenduak ziurtatzeko dokumentazioa, jatorrizkoa edo behar bezala konpultsatua, baino ez dute aurkeztu beharko, dokumentazioa Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeko norbanakoaren espedientean izan ezean.

Gaitasun funtzionalari dagokionez, nolanahi ere, udal-zerbitzu medikoek emandako txostena eskatuko da.

Zortzigarrena. — Lanean hasteko proposamena

Hautagaien behin betiko kalifikazioa eta lehentasun-ordena zehazteko oposizio-fasean eta lehiaketa-fasean lortutako puntuak batuko dira.

Lanean hasteko proposamena interesdunari jakinaraziko zaio eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udal Etxebizitzak erakundearen iragarki-taulan eta TEAREN webgunean argitaratuko da.

Bederatzigarrena. — Lanean hastea

Organo eskudunak lanean hasteko proposamena onetsi ondoren, hautagaiak lanean hasi beharko dira, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1 artikuluan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte.

Adierazitako epean lanean hasten ez diren pertsonen kasuan, inolako justifikaziorik gabe, ulertuko da karguari uko egin diotela, eta eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horretan, erakundeko presidenteak lanean hasteko proposamena egingo du oposizioko ariketak gainditu dituzten, oposizio- eta lehiaketa-fasean balorazio onena lortu duten eta uko-egite horren ondorioz iragarritako lanpostuen kopuruan sartzen diren hautagaien alde, Oinarri Espezifiko hauen seigarren oinarriarekin bat.

Hamargarrena. — Aurka egiteko bideak

Oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri izango da Bilboko Udal Etxebizitzak TEAREN Zuzendaritza Kontseiluaren aurrean, hilabete bateko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabete epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

**I. ERANSKINA**
GAI KOMUNAK

1. gaia: Espainiako Konstituzioa (1978). Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
 2. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua. Euskadiren eskumenak: eskusiboak, legedia garatzekoak eta egikaritzekoak.
 3. gaia: Udalerrria. Biztanle-kopuru handiko udalerrien udal-antolakuntza (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. Titulua).
 4. gaia: Bilboko Udalaren antolakuntza. Araudi organikoak.
 5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzkoa.
 6. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Funtzionarioen eskubide eta betebeharrak. Ordainsariak. Diziplina-araubidea.
 7. gaia: 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzkoa.
 8. gaia: Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legea.
 9. gaia: Datuen babesa: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Zuzentaraua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
 10. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko Legea. Bilboko Udalaren IV. Udal Plana, Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa.
- Oharra: Berdintasunaren IV. Udal Planari (2014-2017) buruzko gaiaren edukia argitaratuta dago udal-webgunean (www.bilbao.eus >Udal>Udal sailak> Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaiak>).
11. gaia: Administrazio-kontratazioa. Motak: elementu eta subjektuak, objektua eta kontratu publikoen kausa. Kontratatzeko modua eta kontratistak hautatzeko sistemak. Kontratuen formalizazioa.
 12. gaia: Giza baliabideak arautzeko tresnak: lan-eskaintza publikoa, enplegu-planak eta beste arrazionalizazio-sistema batzuk.
 13. gaia: Toki-erakundeen zerbitzura dauden langileak: motak eta araubide juridikoa. Tokiko funtzio publikoa: tokiko funtzionario motak. Langilea antolatzekeo tresnak: plantillak eta lanpostu-zerrendak.
 14. gaia: Toki-erakundeen aurrekontu orokorra. Aurrekontu-egitura. Prestaketa eta onespena. Aurrekontuaren luzapena. Aurrekontua egikaritu eta likidatzea.
 15. gaia: Tokiko erakundeen ordenantza eta araudiak.
 16. gaia: Gorte Nagusiak. Herriaren defendatzailea. Arartekoa.
 17. gaia: 49/1960 Legea, uztailaren 21ekoa, Jabetza Horizontalari buruzkoa.
 18. gaia: 29/1994 Legea, azaroaren 24koa, Hiri Errentamenduei buruzkoa.

**II. ERANSKINA****GAI ESPEZIFIKOAK**

19. gaia: 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzari buruzkoa: Xedapen orokorrak. Etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa. Eskumenak, plangintza eta programazioa.

20. gaia: 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzari buruzkoa: Babes publikoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren araubide juridikoa. Eraikuntzan eta hiri- nahiz landa-multzoetan esku hartzea.

21. gaia: 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzari buruzkoa: Fidantzak jartzea eta hiri-finken errentamendu-kontratuen erregistroa.

22. gaia: 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzari buruzkoa: Etxebizitzaren erabileraren egokiaren, bizigarritasun-baldintzen eta funtzio sozialaren berme juridikoak.

23. gaia: 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzari buruzkoa: Ikuskapena, diziplina eta zehapen-araubidea.

24. gaia: 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. Babes publikoko etxebizitza guztietarako xedapenak. Babes ofizialeko etxebizitzaren oinarritzko araubide juridikoa.

25. gaia: 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko araubidea.

26. gaia: 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. Babes ofizialeko etxebizitza-parkearen eginkizun soziala. Babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea.

27. gaia: 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. Jarduketak lurzorua arloan.

28. gaia: 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. Finantza-neurriak.

29. gaia: 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. Xedapen gehigarriak, iragankorrak eta indargabetzaileak.

30. gaia: 149/2021 Dekretua, ekainaren 8koa, jenderik gabeko etxebizitzari eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Jenderik gabeko etxebizitza deklaratzeko administrazio-prozedura. Jenderik gabeko etxebizitzaren erregistroa.

31. gaia: 149/2021 Dekretua, ekainaren 8koa, jenderik gabeko etxebizitzari eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriei buruzkoa. Jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzeko eta okupatzeko sustapen-neurriak. Nahitaezko alokairua eta jenderik gabeko etxebizitzak desjabetzea.

32. gaia: 2011ko irailaren 14ko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskatu beharreko urteko diru-sarreraz haztatuen mugak aldatzeko.

33. gaia: 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Etxebizitza-eskatzaileen erregistroa.

34. gaia: 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. Ins-



kripzioa. Inskripzioa aldatzea. Inskripzioan baja ematea. Inskribatzeko, aldatzeko eta baja emateko prozedura guztietarako xedapenak.

35. gaia: 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. Babes ofizialeko etxebizitzak eta autonomia-araubideko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurak.

36. gaia: 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak erosketa-araubideko babes ofizialeko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak esleitzea. Sustatzaile pribatuek babes ofizialeko etxebizitzak esleitzea. Kooperatiba-sozietateek babes ofizialeko etxebizitzak esleitzea.

37. gaia: 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. Xedapen osagarriak eta iragankorrak.

38. gaia: 2006ko urriaren 4ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoa.

39. gaia: 2010eko azaroaren 3ko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko salmenta-prezioa. Babes ofizialeko etxebizitzaren urteko gehieneko errenta.

40. gaia: 2012ko abenduaren 12ko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, erosteko aukera duten babes ofizialeko etxebizitzaren errentamenduari buruzkoa.

41. gaia: 466/2013 Dekretua, abenduaren 23koa, Bizigune Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duena.

42. gaia: 144/2019 Dekretua, irailaren 17koa, merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) bitartekaritza-programa arautzeko dena.

43. gaia: 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Birgaitze integratuko areen eta area degradatuen araubide juridikoa.

44. gaia: 42/2016 Dekretua, martxoaren 15ekoa, fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroari buruzkoa.

45. gaia: 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibei buruzkoa. Etxebizitzaren kooperatibak.

46. gaia: 2018ko abenduaren 18ko Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Gaztelagun programaren barruan etxebizitza alokatzeko laguntzak arautzen dituena eta deialdia egiten duena.

47. gaia: 2021eko abenduaren 7ko Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, alokairua sustatzeko eta etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak beste modu batean erabiltzeko jarduketei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Jarduketa babestuak eta laguntzak. Errentamendu babestuan lagatze aldera etxebizitzak sustatu eta/edo birgaitzeko neurriak.

48. gaia: 2021eko abenduaren 7ko Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, alokairua sustatzeko eta etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak beste modu batean erabiltzeko jarduketei buruzkoa. Errentamendu babestuan jartze aldera etxebizitzak eros daitezten sustatzeko neurriak. Alokairu-programa, publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzakoa, zeinaren bidez sustapen eta titulartasun pribatuko etxebizitza-parke alternatiboa eratu nahi baita epe luzeko alokairu babestuan lagatzeko. Zuzkidura-bizitokitara bideratutako eraikuntzak sustatzea (sustapen eta/edo birgaitze bidez).



49. gaia: 2021eko abenduaren 7ko Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, alokairua sustatzeko eta etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak beste modu batean erabiltzeko jarduketei buruzkoa. Etxebizitza lortzeko bide alternatiiboak. Laguntzen kudeaketa.

50. gaia: 2021eko irailaren 17ko Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-programen zenbatekoak eguneratzen dituen.

51. gaia: 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, bitarteko elektronikoen bitartez sektore publikoaren jarduketa- eta funtzionamendu-araudia onesten duena. Xedapen orokorrak. Interneteko atariak, sarbide elektronikoko orokorra eta egoitza elektronikokoak.

52. gaia: 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, bitarteko elektronikoen bitartez sektore publikoaren jarduketa- eta funtzionamendu-araudia onesten duena. Bitarteko elektronikoen bidezko administrazio-prozedura.

53. gaia: 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, bitarteko elektronikoen bitartez sektore publikoaren jarduketa- eta funtzionamendu-araudia onesten duena. Administrazio publikoen eta interesdunen identifikazioa eta autentifikazioa. Erregistro, komunikazio eta jakinarazpen elektronikokoak.

54. gaia: 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, bitarteko elektronikoen bitartez sektore publikoaren jarduketa- eta funtzionamendu-araudia onesten duena. Administrazio-espeditente elektronikoa. Dokumentuen fitxategi elektronikoa. Sektore publikoa bitarteko elektronikoei funtzionatzeko administrazio publikoaren arteko harremanak eta lankidetzak.

55. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Legearen xedea eta aplikazio-eremua. Kontratu motak mugatzea. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak.

56. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Sektore publikoko kontratazioaren arrazionaltasuna eta funtsa. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxienezko edukia. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma.

57. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Kontratuaren zatiak. Kontratazio-organismoak.

58. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Objektua, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, balio zenbatetsia, kontratuaren prezioa eta kontratuaren berrikuspena. Sektore publikoko kontratuaren eska daitezkeen bermeak.

59. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Merkatuko alde aurretiko kontsultak. Kontratazio-espeditentea prestatzea. Kontratazio-espeditentea kontratu txikietan. Presaz eta larrialdiz izapidetzea. Administrazio-klausulen agiriak.

60. gaia: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Jarduera publikoaren gardentasuna: Aplikazioko eremu subjektiboa, publikotasun aktiboa, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

**7. Merituak / Méritos**

Merituen zerrenda / Relacion de méritos	
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	

Leku zabalagoa behar izanez gero datu edota informazio gehigarri-rako, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud

8. Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación

Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SI o NO:

	Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.A.an indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak administrazio Publikoen beste erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera. Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales del O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao
	Baimena ematen diot Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.Ari, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, ziurtagiri, hizkuntza eskakizun eta gidabaimenen datuak kontsulta eta egiaztatu ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek esduragarri dauden heinean. Ez baduzu baimen hau ematen daoizkion agiriak erantsi beharko dituzu. Autorizo al O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao a consultar y verificar por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, certificados, perfiles lingüísticos y permisos de conducción alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de no dar la autorización deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes.
	Baimena ematen diot Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.Ari nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan. Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que el O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo.

**LEGE-INFORMAZIOA**

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezientan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

INFORMACIÓN LEGAL

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

Jarri «X» laukitxoan / Marque con una «X» en el recuadro

ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO
--

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

Tokia / lugar

Urtea / año

Hilabetea / mes

Eguna / día

Sinadura / Firma

BILBOKO UDAL ETXEBIZITZAK T.E.A.
O.A.L. VIVIENDAS MUNICIPALES DE BILBAO



Datuen babesa	Protección de datos
Honako hau jakinarazten dizut, indarrean dagoen datuak babesteko araudian aurreikusitako ondorioetarako. Zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Bilbo-ko Udal Etxebizitzak T.E.A. da (Navarra Kalea, 1, 5. eta 6. solairua, 48001-Bilbo). Bilboko Udalean, Modernizazioko Idazkaritza Teknikoaren Sailatalaren burua da datuak babesteko ordezkaria (helbidea: Ernesto Erkoreka plaza, 1, 5. solairua, 48007 Bilbo). Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-prozesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako tituluak eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plazak betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea. Eman dituzun datuak kontserbatuko dira hautaketa-prozesuak irauten duen bitartean, sor litekeen lan-poltsa indarrean dagoen bitartean (lan-poltsa horretan sartzen bazara) eta administrazio honekin ezar litekeen zerbitzu-harremanak irauten duen bitartean. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPOETB) legezko manu bat (55. eta 56. artikulua) betetzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua den egiaztatzea ea betetzen dituzun funtzio publikoan sartzeko betekizunak eta hautaketa-prozesuan hori betetzeko behar diren gainerako inguruabarrak. EPOETBn (10. art.) ezarritako botere publiko bat egikaritzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua aurkeztu zaren hautaketa-prozesuaren ondorioz egin litezkeen lan-poltsak kudeatzea denean. Baimenik ematen ez baduzu aurretik adierazi diren arrazoieta oinarriturik zure datuak tratatzeko, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu. Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure datuak hautaketa-prozesuan komunikazioak egiteko tratatzeari dagokionez, horretarako berriaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenbakien datuak tratatzeko baimena ematearen mende. Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) badaude sor litezkeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei, betiere jasota badago berriaz baimena eman duzula horretarako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan. Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetarako eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legitiimitaterik kenduko baimena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agintaritzaren aurrean.	A los efectos previstos en la normativa vigente de protección de datos se le informa que: El Responsable del tratamiento de sus datos personales es el O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao (Calle Navarra, 1, 5.º y 6.ª planta, 48001-Bilbao). El Delegado de Protección de Datos del Ayuntamiento de Bilbao es la Jefatura de Subárea de Secretaría Técnica de Modernización, con dirección en la Plaza Ernesto Erkoreka, 1, 5.ª planta, 48007-Bilbao. Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correctamente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultados del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre. Los datos proporcionados se conservarán mientras dure el proceso selectivo, mientras esté vigente la bolsa de trabajo que pudiera crearse, en caso de acceder a ella, y mientras dure la relación de servicio que pudiera llegar a establecerse con esta Administración. La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de verificar los requisitos de acceso a la función pública y las circunstancias que determinen su desempeño en el proceso selectivo es el cumplimiento de un mandato legal contenido en el TREBEP (arts. 55 y 56). La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de gestionar las posibles bolsas de trabajo resultantes del proceso selectivo al que usted aspira es el ejercicio de un poder público recogido en el TREBEP (artículo 10). De no prestar el consentimiento para el tratamiento de sus datos basado en los antedichos motivos, no será posible la participación en el correspondiente proceso selectivo. La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones durante el proceso selectivo es su consentimiento expreso a tal efecto. La participación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supeditadas a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono. Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nombre y apellidos, DNI, domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos. Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el consentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.

**ARKITEKTO TEKNIKO LANPOSTU BAT BETETZEKO DEIALDIAREN
OINARRI ESPEZIFIKOAK****Lehenengoa. — Iragarritako plazak**

Oinarri espezifikoa hauek, 2022ko maiatzaren 12ko 90. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Oinarri Orokorrekin batera, txanda askeko sistemaren eta lehiaketa-oposizioaren bidez iragarritako plantillako langile finkoen hautaketa-prozesua arautuko dute, Arkitekto Tekniko lanpostu bat betetzeko, euskarazko nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin, 2075-01 zuzkidura-zenbakiarekin, 23. mailan eta Sailkapen Profesionalaren 2. Taldean (A Taldea/A2 Azpitaldea), 2021eko Lan Eskaintza Publikoaren barruan.

Bigarrena. — Iragarritako plazetarako baldintza espezifikak

- a) Hautagaiek arkitekto teknikoaren titulua izan edo hura lortzeko moduan egon beharko dute, edo lanbide hori izateko gaitzen duen titulua, Batasunaren arauekin bat, eskabideak aurkezteko epea amaitzean.

Atzerrian lortutako tituluak dituzten hautagaiek dagokion homologazio-kredentziala izan beharko dute. Baldintza hori ez zaie aplikatuko kualifikazio profesionalaren aitortpena lortu duten hautagaiei, araututako lanbideen arloan, Batasunaren zuzenbide-xedapenen babespean.

- b) Espainiako nazionalitatea izatea indarreko Oinarri Orokorren lehen puntuaren bosgarren oinarrian jasotako baldintzetan (2022ko maiatzaren 12ko 90. BAO).
- c) Gaitasuna: lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea; horretarako, beharrezko gaitasun psikofisikoa izango du, eta bere gaitasunak edo desgaitasunak bateragarria izan beharko du iragarritako plazei dagokien lanpostuaren funtzio eta lanak egiteko. Hori udal-zerbitzu medikoek egiaztatuko dute, Oinarri Orokorretan aurreikusitakoarekin bat, laneko arriskuen prebentzioaren arloko indarreko araudiarekin bat egin beharreko lanpostuko egokitzapenak gorabehera, pertsonen babesa bermatzeko lanetik eratorritako arriskuen aurrean.
- d) Adina: hamasei urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, ez gainditzea nahitaezko erretirorako gehieneko adina.
- e) Gaikuntza: diziplina-espediente bidez ez egotea bananduta administrazio publikoen edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoen zerbitzuetik, edo ez egotea enplegu edo kargu publikoak edota funtzionario-kidego edo -eskalak betetzeko gaitasunik gabe ebazpen judizialen bidez, modu absolutu edo berezian.

Beste estatu bateko nazionala izanez gero, ez egotea gaitasunik gabe edo egoera baliokidean, ezta bere estatuan enplegu publikoan sartzea eragozten dion diziplina-zigorrik edo baliokiderik edukitzea.

- f) Administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea; hala ere, kargu publiko bat edo jarduera pribatu bateraezin bat betetzen ari direnek aipatutako lege-arauetan xedatzen den aukera-eskubidea baliatu ahal izango dute.

Deialdian parte hartu nahi dutenek baldintza guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.

Hirugarrena. — Eskabideak**1. Aurkezteko modua eta tokia**

Eskaera bi modutan egin daiteke:

- a) Lehenetsunez, eskabide elektronikoa: bete behar den eredu ofiziala eta jarraitu beharreko prozedura eskuragarri daude erakundearen webgunean, LEP atalean: <https://opevmm.bilbao.eus/OPEM/idm1/index.jsp?null>

Eskabide horiek helbide elektronikoa horretan finkatutako prozedura elektronikoa-ren bidez aurkeztuko dira. Baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzen



direla adierazi beharko da hautaketa-prozesu honetan parte hartzea eskatzeko eskabidean, horiek zerrendatuta eta identifikatuta. Hala ere, ez da horien egiaztagirien kopia aurkeztu behar eskabidearekin batera; izan ere, parte hartzeko baldintzak eta hala badagokio alegatutako merezimenduak Epaimahaiak edo Kalitate, Giza Baliabide eta Zerbitzu Orokorren Arloak eskatzean egiaztatu behar dira.

Eskaerak egiteko bitarteko teknikoak, aholkularitza edo laguntza behar izanez gero, honako honekin jar daiteke harremanetan: Kalitate, Giza Baliabide eta Zerbitzu Orokorren Arloa. Terminus eraikina. Nafarroa kalea 5, 5. solairua. Bilbo.

- b) Paperezko eskabidea: paperezko eskabideen kasuan, 39/2015 Legearen 14. artikuluan, laugarren xedapen iragankorrean eta xedapen indargabetzaile bakoitzean xedatutakoarekin bat, 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan jasotako tokietan aurkeztu ahalko dira. Horretarako, oinarri hauetan eskabide-eredu bat atxiki da.

Halaber, hautagaiek oinarri hauetan eskatutako baldintzak onartzen dituzte, eta, horrekin batera, baimena eman ahalko dute eskaera formalizatzean, hura betetzeko beharrezko dokumentazioaren kontsulta telematikoa dagokionez, besteak beste hauek: NANA, titulazio akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak, etab. Baimena emanez gero, ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea, betiere kontsulta badaiteke elkarreragingarritasun informatiko bidez. 2022ko maiatzaren 12ko 90. «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratutako Oinarri Orokorren hamaikagarren oinarrian (lan-poltsak osatzea) aurreikusitako ondorioetarako oinarri hauetan aipatzen diren hautaketa-prozesuak egitearen ondorioz, hautagaiek parte hartzeko eskabidean adierazi beharko dute ea administrazio publikoko beste erakunde batzuei datuak lagatzea baimentzen duten. Datu horiek honako hauek dira: izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila. Datuen lagapen horren xede bakarra da lan-eskaintzak egitea legean aurreikusitako terminoetan; ez bada berariaz jasotzen baimena, ulertuko da ez dutela eman.

Eskabidean honako hau egin beharko du hautagaia:

- a) Adierazi, haren erantzukizunpean, deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen dituela, eskabideak aurkezteko epearen amaiera-datari dagokionez.
- b) Hautaketa-probak egiteko hizkuntza adierazi (euskara edo gaztelania). Ez badu zehazten, ulertuko da proba guztiak gaztelaniaz egingo direla.

2. *Eskabideak aurkezteko epea*

Eskaera 20 (hogei) egun balioduneko epean egin beharko da, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita. Larunbat, igande eta jaiegunak ez dira hartuko egun balioduntzat.

Laugarrena. — Epaimahaia

Epaimahaia honako hauek osatuko dute, indarreko legedian eta plantillako langile finkoen lanpostuak betetzeko Oinarri Orokor hauetan ezarritakoari jarraikiz: epaimahai-buru batek, idazkari batek eta gutxienez hiru mahaikidek. Horien artean Herri Arduraltzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat egon beharko da nahitaez.

Osaera nagusiki teknikoa izango da, eta espezialitate-printzipioak zehaztuko du; beraz, kide guztiek iragarritako plazak betetzeko eskatzen den maila akademikoko edo maila handiagoko titulazioa izan beharko dute, eta, gutxienez, kideen erdiek esperientzia egiaztatua izan beharko dute beteko den plazari dagokion ezagutza-arloan. Halaber, egokia ez dela justifikatu ezean, sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkartza izan beharko du.

Euskararen ezagutza-probari dagokion epaimahaikideak horretarako bakarrik izango du balioa, eta gehigarria izango da aurretik aipatutako hiru mahaikideekiko.

**Bosgarrena. — Hautaketa- prozedura**

Hautagaiak sarbide askeko sistemaren eta lehiaketa-oposizio bidez hautatuko dira. Oposizio-fasea hiru ariketak osatuko dute, eta lehiaketa-fasean oposizio-fasea gainditu duten pertsonen merezimenduak baloratuko dira.

A. Oposizio-fasea

Oposizio-fasean hiru kanporaketa-ariketa egingo dira.

Lehen ariketa

Bi zati izango ditu, eta biak egun berean egingo dira. Epaimahaiak atsedenaldi bat emango die hautagaiari bi zatien artean.

Lehen zatian idatziz erantzun beharko da test motako 60 galderak osatutako galde-tegi bat. Galderak Epaimahaiak aukeratuko ditu aurretik argitaratutako galdera-sorta batetik; soilik 50 izango dira ebaluagarriak, eta 10 erreserbakoak. Erantzutako lau aukera egongo dira, eta soilik bat da zuzena, eranskineko programaren zati komuneko (1-18 gaiak) gaietan oinarrituta. Epaimahaiak gehieneko denbora-epea finkatuko du proba hasi aurretik.

Azken 10 galderak erreserba-galderak dira, eta soilik kontuan hartuko dira lehen 50 galderetako bat baliogabetzen bada.

Zati horri 0 eta 5 arteko puntuazioa emango zaio. Zati horretan, erantzun zuzen bakoitza 1 punturekin baloratuko da, eta erantzun oker bakoitzarekin 0,33 puntu kenduko dira; beraz, gehienez, 50 puntu lortu ahalko dira, eta horren baliokidea 5 puntu dira amaierako puntuazioan.

Erantzun gabeko galderak eta erantzun bikoitzek ez dute zigorrik izango.

Bigarren zatian, eranskineko gai-zerrendaren II. zatiko gaiak idatziz garatu beharko dira; horiek ausaz aukeratuko ditu Epaimahaiak ariketa egin baino lehen, eta gehieneko denbora-epea ere finkatuko du. Ariketaren zati hori egin aurretik, Epaimahaiak zuzentzeko irizpideak eta puntuatzeko modua jakinaraziko ditu.

Bigarren zatiari 0 eta 15 arteko puntuazioa emango zaio.

Ariketa horri 0 eta 20 arteko puntuazioa emango zaio, eta automatikoki probatik kanpo geldituko dira, gutxienez, 10 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

Bigarren ariketa

Epaimahaiak proposatutako kasu praktikoa bat edo gehiago ebatzi beharko dira, Epaimahaiak finkatutako modu eta denboran; kasuek lotura izango dute eranskineko gai-zerrendarekin. Ariketa egin aurretik, Epaimahaiak zuzentzeko irizpideak eta puntuatzeko modua jakinaraziko ditu.

Ariketa horri 0 eta 20 arteko puntuazioa emango zaio, eta automatikoki probatik kanpo geldituko dira gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

Hirugarren ariketa (euskara-proba)

Nahitaezkoa eta kanporatzailea izango da; izan ere, bete beharreko lanpostuak nahi-taezko 3. hizkuntza-eskakizuna du.

Euskarazko 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea izango da, epaimahaiak zehazten duen moduan. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarrai-bideei jarraituko zaie, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen 99.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ariketa hau egitetik salbuetsita geldituko dira aldeztu aurretik IVAPek emandako 3. hizkuntza-eskakizuna edo euskarazko ezagutzak egiaztatzeko ziurtagiri ofizialen bat dutenak, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Erkideko C1 mailakoa, baita hizkuntza-eskakizuna Euskara Tituluaren eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateratuan egiaztatu dutenak ere. Horretarako, parte-hartzaileak Bilboko Udal Etxebizitzak TEAri berariazko baimena emango dio erregistro horretan egiaztatzeko. Baimen hori ematen ez duten hautagaiek beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dute Epaimahaiak eskatzean.



Ariketa horri gai edo ez gai kalifikazioa emango zaio.

Oposizio-faseko gehieneko puntuazioa: fase horretan, gehienez, 40 puntu lortu ahal-ko dira.

Oposizio-faseko ariketetan, ikasi beharreko araudia deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoena izango da.

Abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuaren 8. artikulua eta EFPLaren zazpi-garren xedapen gehigarriaren arabera, epaimahaiak ahalmena izango du deialdi hone-tako probak egiteko behar diren denbora- eta baliabide-egokitzapenak egiteko, desgaita-sunen bat egiaztatu duten eta eskabidean hala adierazi duten pertsonentzat, betiere ez bada probetako edukia indargabetzen edo eskatzen den nahikotasun-maila murrizten. Horrez gain, bermatu beharko da probak gainerako hautagaiekiko baldintza-berdintasu-nean egingo direla.

B. *Lehiaketa-fasea*

Lehiaketa-fasea oposizio-fasea amaitu ondoren hasiko da, eta fase hori gainditu du-ten hautagaiek egin ahalko dute. Eskabideak aurkezteko epean alegatutako merezimen-duak aztertu eta baloratuko dira, eta behar bezala egiaztatuko dira Epaimahaitik edo Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren Kalitate, Giza Baliabide eta Zerbitzu Orokorren Arloak emandako epean, adierazitako webgunean argitaratutako iragarkian. Merezimenduak oinarri hauetan jasotakoaren arabera baloratuko dira, eta ezingo da baloratu beste edo-zein merezimendu. Soilik eskabideak aurkezteko epea amaitu artekoak baloratuko dira.

a) Antzinatasuna:

Administrazio publikoan arkitekto teknikoaren A-2 Taldeko plaza/lanpostuetan emandako zerbitzuek gehienez ere 14 puntu, 1,4 punturekin zerbitzu-urte bakoit-zeko edo sei hilabetetik gorako tarte bakoitzeko.

b) Prestakuntza:

Deialdian eskatzen ez diren eta ikastetxe publiko edo pribatu batek emandako (administrazio eskudunak titulazio akademiko ofizialak emateko eskumena aitor-tu badie) titulazio akademiko ofizialek gehienez ere 3 puntu, xehetasun hauen arabera:

- Lizentzia-, arkitektura, ingeniari-tza- edo gradu-titulu (MECES 3) bat edukitzea: 1,5 puntu.
- Gradu (MECES 2), ingeniari-tza teknikoko edo diplomaturako titulu bat edu-kitzea: 1 puntu.
- Autobabes-planak egiteko gaitzen duen titulu bat edukitzea: 0,5 puntu.

Ez dira baloratuko merezimendu gisa alegatutako titulazio handiago bat lortzeko beharrezko titulazioak.

Unibertsitate-ikasketa bereko hainbat ziklo gainditu dituztela egiaztatzen duten hautagaiei soilik egiaztatutako ziklo handienari dagokion titulua baloratuko zaie, bai merezimendu gisa eta bai prozesuan sartzeko titulazio gisa.

Ikasketa berei buruzko unibertsitate-titulazio bat dutenei zuzendutako egokitza-pen-ikastaro bat eginda lortutako gradu-titulua titulu bakartzat joko da jatorrizko titulazioarekin batera.

Unibertsitateko gradu- eta master-tituluaren bidez 3 MECES maila egiaztatzean, unibertsitate-masterra ez da baloratuko merezimendu gisa deialdian 3 MECES mailako lizentziak, ingeniari-tzak edo arkitekturak dituzten hautagaiek parte har-tzen badute.

c) Hizkuntzak:

Gaztelaniaz bestelako Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak ezagutzea balora-tuko da, zehaztutako mailen arabera, gehienez ere 1 punturekin, taula honekin bat.

- B2 maila: 0,5 puntu.
- C1 maila: 1 puntu.



Egiaztatutako hizkuntza bakoitzerako soilik ezagutza-mailarik handiena puntuatuko da.

Lehiaketa-faseko gehieneko puntuazioa: lehiaketa-fasea lor daitekeen puntuazioa ezingo da izan 18 puntu baino gehiagokoa.

Epaimahaiak, oposizioa ariketen eta lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa amaitu ondoren, sailkapenaren ordena finkatuko du, handienetik txikienera, hautaketa-prozesuko bi faseak batu ondoren.

Seigarrena — Behin betiko sailkapena

Hautaketa-prozesua osatzen duten proba eta merezimenduen kalifikazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak hautatutako pertsonen zerrenda argitaratuko du, oposizio-fasea gainditu duten pertsonen lortutako puntuak eta, hala badagokio, lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa batuta. Hautatutako pertsonen kopuruak ezingo du gainditu guztira iragarritako lanpostuen kopurua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 32. artikuluekin bat. Halaber, Epaimahaiak dagokion izendapen-proposamena egingo du, zerrenda hori erakundearen Presidentetzara bidalita. Horrez gain, agintaritzak horri azken saioaren akta bidaliko dio, eta bertan jasoko dira, puntuazio-ordenaren arabera, bi faseak gainditu dituzten eta iragarritako lanpostuen kopurua gainditu duten pertsonak, lanpostua lortu duen norbait ez bada lanean hasten. Hala ere, azken zerrenda horretan sartzeak ez du beste eskubide edo aukerarik ematen, Oinarri Orokor hauen hamargarren oinarriak ezarritakoarekin bat.

Zazpigarrena. — Dokumentuak aurkeztea

Oinarri Orokorren hamabigarren oinarriak ezarritakoaren arabera arautuko da.

Plantillako langile finko bihurtzeko proposatutako pertsonen Udal Etxebizitzak erakundearen Kalitate, Giza Baliabide eta Zerbitzu Orokorren Arloan (Nafarroa kalea 5, 5. solairua) aurkeztuko dituzte hamabigarren oinarrian hautaketa-prozesuan parte hartzeko zerrendatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentuak, 20 eguneko epean, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako pertsonen ez badute aurkeztu deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa, edo azterketatik edo mediku-azterketatik ondorioztatzen bada ez dituela betetzen eskatutako baldintzak, automatikoki geldituko da prozesutik kanpo, ezingo da lanean hasi eta jarduketa guztiak indargabetuta geldituko dira, eskabideko faltsukeriagatik izan ditzakeen erantzukizunei kalterik egin gabe, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatu ondoren. Kasu horretan, Zuzendaritza Kontseiluko presidentek izendapen-proposamena egingo du hautaketa-prozesuko ariketa guztiak gainditu dituzten eta indargabetze horren ondorioz lanpostu-kopuruaren barruan sartzen diren hautagaien alde.

Zortzigarrena. — Lanean hasteko proposamena

Hautagaien behin betiko kalifikazioa eta lehentasun-ordena zehazteko oposizio-fasean eta lehiaketa-fasean lortutako puntuak batuko dira, eta ezinbestekoa izango da gaitzat jotzea.

Lanean hasteko proposamena interesdunari jakinaraziko zaio eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udal Etxebizitzak erakundearen iragarki-taulan eta TEAren webgunean argitaratuko da.

Bederatzigarrena. — Lanean hastea

Organo eskudunak lanean hasteko proposamena onetsi ondoren, hautagaiak lanean hasi beharko dira, eta Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1 artikuluan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte, jakinarazpena jaso eta hurrengo 30 egunen barruan.



Adierazitako epean lanean hasten ez diren pertsonen kasuan, inolako justifikaziorik gabe, ulertuko da karguari uko egin diotela, eta eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horretan, erakundeko presidenteak lanean hasteko proposamena egingo du oposizioko ariketak gainditu dituzten, oposizio- eta lehiaketa-fasean balorazio onena lortu duten eta uko-egite horren ondorioz iragarritako lanpostuen kopuruan sartzen diren hautagaien alde, Oinarri Espezifiko hauen seigarren oinarriarekin bat.

Hamargarrena. — Aurka egiteko bideak

Oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri izango da Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren Zuzendaritza Kontseiluaren aurrean, hilabete bateko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabete epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

**I. ERANSKINA****I. ZATIA: GAI KOMUNAK**

1. gaia: Espainiako Konstituzioa (1978). Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
 2. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua. Euskadiren eskumenak: eskusiboak, legedia garatzekoak eta egikaritzekoak.
 3. gaia: Udalerrria. Biztanle-kopuru handiko udalerrien udal-antolakuntza (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. Titulua).
 4. gaia: Bilboko Udalaren antolakuntza. Araudi organikoak.
 5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzkoa.
 6. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Funtzionarioen eskubide eta betebeharrak. Ordainsariak. Diziiplina-araubidea.
 7. gaia: 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzkoa.
 8. gaia: Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legea.
 9. gaia: Datuen babesa: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Zuzentaraua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
 10. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko Legea. Bilboko Udalaren IV. Udal Plana, Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa.
- Oharra: Berdintasunaren IV. Udal Planari (2014-2017) buruzko gaiaren edukia argitaratuta dago udal-webgunean (www.bilbao.eus >Udal>Udal sailak> Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaiak>).
11. gaia: Administrazio-kontratazioa. Motak: elementu eta subjektuak, objektua eta kontratu publikoen kausa. Kontratatzeko modua eta kontratistak hautatzeko sistemak. Kontratuen formalizazioa.
 12. gaia: Giza baliabideak arautzeko tresnak: lan-eskaintza publikoa, enplegu-planak eta beste arrazionalizazio-sistema batzuk.
 13. gaia: Toki-erakundeen zerbitzura dauden langileak: motak eta araubide juridikoa. Tokiko funtzio publikoa: tokiko funtzionario motak. Langilea antolatzekeo tresnak: plantillak eta lanpostu-zerrendak.
 14. gaia: Toki-erakundeen aurrekontu orokorra. Aurrekontu-egitura. Prestaketa eta onespena. Aurrekontuaren luzapena. Aurrekontua egikaritu eta likidatzea.
 15. gaia: Tokiko erakundeen ordenantza eta araudiak.
 16. gaia: Gorte Nagusiak. Herriaren defendatzailea. Arartekoa.
 17. gaia: 49/1960 Legea, uztailaren 21ekoa, Jabetza Horizontalari buruzkoa
 18. gaia: 29/1994 Legea, azaroaren 24koa, Hiri Errentamenduei buruzkoa.

II. ZATIA: GAI ESPEZIFIKOAK

19. gaia: Lurzoruaren jabetzari buruzko sailkapena, kalifikazioa eta araubidea, eskubideak eta betebeharrak. Lurzoru-kategoriak eta motak. Lurzoru urbanizaezina Lurzoruaren Legean.
20. gaia: Egiturazko hirigintza-antolamendu. Egiturazko plangintza. Plan motak. Edukia, dokumentazioa eta izapidetzea.



21. gaia: Hirigintza-antolamendu xehatua. Garapen-plangintza. Plan motak eta beste figura osagarri batzuk. Edukia, dokumentazioa eta izapidetzea. Urbanizazio-proiektuak.

22. gaia: Indarreko Bilboko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta berrikuspen-dokumentua erabilera-arauen eta eraikingintza-arauen onespen-prozesuan.

23. gaia: Lurren balorazioa lurzoru motaren arabera. Sistema orokor eta zuzkidura publikoetara bideratutako lurren balorazioa. Obren eta beste ondasun eta eskubide batzuen balorazioa.

24. gaia: Nahitaezko desjabetzea. Kontzeptua, elementuak eta izaera juridikoa. Ohi-ko eta premiazko prozedura. Balio justua zehaztea. Okupazioa eta erregistroko inskripzioa. Itzulketa.

25. gaia: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kon-tuan hartu beharreko alderdiak, udal-eraikinen mantentze-zerbitzuen kontratuen agiriak idaztean.

26. gaia: Hirigintza-lizentzia eta -kontsultak. Xedea eta arloa. Araubide juridiko komu-na lizentzietan.

27. gaia: Eraikingintza-obren lizentzia. Mendeko egintzak. Eskaera eta dokumenta-zioa. Proiektu teknikoa. Izapidetzea eta txostenak. Jarduera kalifikatuak. Akats zuzenga-riak. Aldaketak. Lehen erabilerako lizentzia. Obra txikiak, ohiko prozedura, laburtua eta jakinarazpena.

28. gaia: Jarduera abiarazteko aurretiazko jakinarazpena. Edukia eta izapidetzea. Jarduera-lizentziak. Mendeko egintzak eta baztertuak. Udal Batzorde Txostengile Tekni-koa. Funtzionamendua eta etengabeko ikuskapena.

29. gaia: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babes-teari buruzkoa. Lurzoru kutsatuak. 4/15 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzkoa. Ingurumen-diziplina.

30. gaia: Hirigintza-legez kotasuna babestea. Eskumenak hirigintza-ikuskapenean. Hirigintzako arau-hausteen aurreko neurriak. Hirigintzako arau-hausteen tipifikazioa. Ar-duradunak. Zehapenak aplikatzeko arauak. Preskripzioa.

31. gaia: Ondasun higiezinak zaindu eta birgaitzeko obrak. Zaindu eta birgaitzeko betebeharra. Egikaritze-aginduak. Legezko aurri-egoera. Hur-hurreko aurri fisikoa. Hi-giezinak mantendu, konpondu eta birgaitzeari buruzko udal-ordenantza.

32. gaia: 117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa, EAEko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoa. EITaren edukia eta prozedura. Esku hartzen duten agenteak. EAEko Eraiki-nen Ikuskapen Teknikoaren Erregistroa.

33. gaia: 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irigarritasuna sustatzekoa, eta 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, irigarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen di-tuena. Irigarritasun-baldintzak eraikinetan. CTE-DB-SUA delakoan jasotako irigarrita-sun-xedapenekiko lotura. Etxebizitzetan irigarritasuna sustatzeko udal-ordenantza.

34. gaia: 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irigarritasuna sustatzekoa, eta 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, irigarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen di-tuena. Irigarritasun-baldintzak hiri-ingurunean, urbanizazioetan eta informazio- eta ko-munikazio-sistemetan.

35. gaia: Fatxada tradizionala. Isolamendu termikoa eta kondentsazioak. Harria fa-txaden estalduretan. Kolokazio-sistemak.

36. gaia: Fatxada aireztatua: abantailak, eragozpenak eta materialak. Isolamendu termikoko sistema kanpotik, egungo eraikinetan. Eraikingintza Kode Teknikoarekiko lotu-ra, CTE-DB-SI delakoa betetzea.

37. gaia: Estalki planoak. Saikapena eta ezaugarriak. Iragazgaizte-sistemak.

38. gaia: Estalki inklinatuak. Eraikuntza-elementu eta -sistemak.

39. gaia: Berogailu-instalazioak eta haien tipologia. Bero-ponpa. Berogailu elektrikoa. Eguzki-energia bidezko berogailua eta erregai organikoena.



40. gaia: Aire girotuaren sistemak. Hautaketa-irizpideak eta instalazio baten ezaugarriak.
41. gaia: Udal-zerbitzuak: ura hornitzeko sarea, saneamendu-sarea eta argiteria publikoa. Oinarrizko arauketa.
42. gaia: Hargune elektrikoak. Eraldaketa-zentroak. Lur-konexioko instalazioak. Larraldi-instalazioak lokal publikoetan.
43. gaia: Suteen aurkako oinarrizko segurtasun-dokumentua. Barne-hedapena. Kanpo-hedapena. Egituraren erresistentzia suarekiko.
44. gaia: Suteen aurkako oinarrizko segurtasun-dokumentua. Okupatzaileen ebakua-zioa. Suteen aurka babesteko instalazioak. Suhiltzaileen esku-hartzea.
45. gaia: Kea eta beroa kontrolatzeko sistemak. Espazioak babestea presio-diferentzialeko sistemen bidez. UNE-EN 12101-6 6. zatia. Xedea eta aplikazio-eremua. Eraikinentzako sistemen sailkapena. Presurizazio-sistemen ezaugarriak. Presurizatu beharreko espazioak. Suteen aurkako sistemen eta eraikineko beste sistema batzuen arteko interakzioa.
46. gaia: Tenperatura-kontrola eta kearen ebakuazioa: sutearen garapena eta kearen ekoizpena. Aire hartzeko sistemak eta beroa eta kea kanporatzeko sistemak: SCTEH sistemen helburuak eta aplikazioak. Kearen kontrola eraikin eta/edo establezimenduetan.
47. gaia: 513/2017 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, Suteen Kontrako Babes Instalazioen Erregelamendua onartzen duena. I. eranskina: suteen aurkako babes-ekipo eta -sistemen ezaugarriak eta instalazioa.
48. gaia: Autobabeserako euskal araua. Xedapen orokorrak, autobabes-betebeharrak eta autobabes-planak. Autobabes-planaren gutxieneko edukia.
49. gaia: Laneko segurtasun eta higienezaren ordenantza orokorra. Lantokietako segurtasun eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenen araudia, babes indibidualen erabilera eta lan-ekipoen erabilera. (486/1997, 773/1997 eta 1215/1997 Errege Dekretuak).
50. gaia: 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-obretako segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko xedapenak ezartzen dituena I: definizioak. Segurtasun eta osasunari buruzko xedapen espezifikoak proiektuaren fasean era obren egikaritzean zehar. Langileen eskubideak. Proiektuen oniritziak. Aurretiazko oharra. Informazioa lan-agintaritzari.
51. gaia: 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-obretako segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko xedapenak ezartzen dituena II: ikus-onetsitako proiektua duten obrei aplikatzeko araubidea. Eraikuntza edo ingeniari-tza zibileko obren zerrenda ez exhaustiboa. Langileen segurtasun eta osasunarentzat arriskuak izan daitezkeen lanen zerrenda ez exhaustiboa. Obrei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak.
52. gaia: Segurtasun- eta osasun-azterlana idaztea. Segurtasun-plana eta hura onestea. Segurtasun- eta osasun-koordinatzailearen funtzio eta erantzukizunak obraren faseetan.
53. gaia: Amianto. Manipulatzearen arriskuak. Eraikinetik kentzeko prozedura. Amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplika dakizkiekeen segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuarekin bat.
54. gaia: Fatxadak birgaitu eta/edo erreformatzeko obretarako bide publikoan ipinitako hodi-aldamioak eta portiko modularrak. Babesteko biserak. Muntatze-, erabilera-, mantentze- eta desmuntatze-baldintzak. Udal-araudia eta EUDEL-en irizpideak.
55. gaia: Eraispenak eta haien segurtasuna. Baldintzen agiriaren edukia. Eraispen-proiektuaren teknikak. Eraispenaren aurretik, bitartean eta ondoren hartu beharreko neurriak. Babes indibidual eta kolektiboak.



56. gaia: 38/99 Legea, azaroaren 5koa, Eraikuntza Antolatzeari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Eraikuntzaren eskakizun tekniko eta administratiboak. Erantzukizunak eta bermeak.

57. gaia: 209/2014 Dekretua, urriaren 28koa, Eraikuntzan Kalitate Kontrola arautzen duena.

58. gaia: 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen.

59. gaia: Eraikuntza Kode Teknikoa (EKT). Xedapen orokorrak. Baldintza tekniko eta administratiboak. Oinarrizko eskakizunak.

60. gaia: CTE-DB-SUA. Aplikazio-eremua eta -irizpideak. Segurtasuna erortzeko arriskuaren, barrutietan giltzapetuta gelditzearen, argiztapen desegokiaren, okupazio handiko egoeren eta mugitzen ari diren ibilgailuen aurrean.

61. gaia: 485/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, laneko segurtasun- eta osasun-seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen: definizioak. Enpresariaren betebeharrak orokorra. Seinaleztapena erabiltzeko irizpideak. Prestakuntza eta informazioaren arloko betebeharrak. Langileen kontsulta eta parte-hartzea.

62. gaia: 485/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, laneko segurtasun- eta osasun-seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen: lantokiko segurtasun eta osasunaren seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapen orokorrak. Segurtasun-koloreak. Panel-formako seinaleak. Argi- eta soinu-seinaleak. Ahozko komunikazioak. Keinu-seinaleak. Hainbat seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak.

63. gaia: Arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren planifikazioa. Prebentzio-jardueretarako baliabideen antolakuntza. Erakunde espezializatuak egiaztatzea enpresatik kanpoko prebentzio-zerbitzu gisa. Auditoretzak. Prebentzio-zerbitzuen lankidetzan Osasun Sistema Nazionalean.

64. gaia: 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena: ITC-BT-25, ITC-BT-26, ITC-BT-27.

65. gaia: 25/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzkoa.

66. gaia: EAEko etxebizitza eta zuzkidura-bizitokietako bizigarritasun-baldintzen oinarrizko arau-esparrua.

67. gaia: CTE-DB-HE Energia-aurrezpena.

68. gaia: CTE-DB-HS Osasungarritasuna.

69. gaia: 2291/1985 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, jasogailuei eta mantentze-gailuei buruzko erregelamendua onartu duena.

70. gaia: 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena. Xedapen orokorrak. Babes publikoko bizitegi-sistema: babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak. Eraikuntzan eta hiri-multzoetan esku hartzea.

**7. Merituak / Méritos**

Merituen zerrenda / Relacion de méritos	
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	

Leku zabalagoa behar izanez gero datu edota informazio gehigarri-rako, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud

8. Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación

Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SI o NO:

	Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.A.an indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak administrazio Publikoen beste erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera. Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales del O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao
	Baimena ematen diot Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.Ari, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, ziurtagiri, hizkuntza eskakizun eta gidabaimenen datuak kontsulta eta egiaztatu ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek esduragarri dauden heinean. Ez baduzu baimen hau ematen daozkion agiriak erantsi beharko dituzu. Autorizo al O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao a consultar y verificar por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, certificados, perfiles lingüísticos y permisos de conducción alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de no dar la autorización deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes.
	Baimena ematen diot Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.Ari nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan. Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que el O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo.

**LEGE-INFORMAZIOA**

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezientan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

INFORMACIÓN LEGAL

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

Jarri «X» laukitxoan / Marque con una «X» en el recuadro

ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO
--

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

Tokia / lugar

Urtea / año

Hilabetea / mes

Eguna / día

Sinadura / Firma

BILBOKO UDAL ETXEBIZITZAK T.E.A.
O.A.L. VIVIENDAS MUNICIPALES DE BILBAO



Datuen babesa	Protección de datos
Honako hau jakinarazten dizut, indarrean dagoen datuak babesteko araudian aurreikusitako ondorioetarako. Zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Bilbo-ko Udal Etxebizitzak T.E.A. da (Navarra Kalea, 1, 5. eta 6. solairua, 48001-Bilbo). Bilboko Udalean, Modernizazioko Idazkaritza Teknikoa-ren Sailatalaren burua da datuak babesteko ordezkaria (helbidea: Ernesto Erkoreka plaza, 1, 5. solairua, 48007 Bilbo). Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-prozesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako tituluak eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plazak betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea. Eman dituzun datuak kontserbatuko dira hautaketa-prozesuak irauten duen bitartean, sor litekeen lan-poltsa indarrean dagoen bitartean (lan-poltsa horretan sartzen bazara) eta administrazio honekin ezar litekeen zerbitzu-harremanak irauten duen bitartean. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPOETB) legezko manu bat (55. eta 56. artikulua) betetzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua den egiaztatzea ea betetzen dituzun funtzio publikoan sartzeko betekizunak eta hautaketa-prozesuan hori betetzeko behar diren gainerako inguruabarrak. EPOETBn (10. art.) ezarritako botere publiko bat egikaritzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua aurkeztu zaren hautaketa-prozesuaren ondorioz egin litezkeen lan-poltsak kudeatzea denean. Baimenik ematen ez baduzu aurretik adierazi diren arrazoieta oinarriturik zure datuak tratatzeko, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu. Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure datuak hautaketa-prozesuan komunikazioak egiteko tratatzeari dagokionez, horretarako berriaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenbakien datuak tratatzeko baimena ematearen mende. Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) badaude sor litezkeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei, betiere jasota badago berriaz baimena eman duzula horretarako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan. Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetarako eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legitimatzerik kenduko baimena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agintaritzaren aurrean.	A los efectos previstos en la normativa vigente de protección de datos se le informa que: El Responsable del tratamiento de sus datos personales es el O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao (Calle Navarra, 1, 5.º y 6.ª planta, 48001-Bilbao). El Delegado de Protección de Datos del Ayuntamiento de Bilbao es la Jefatura de Subárea de Secretaría Técnica de Modernización, con dirección en la Plaza Ernesto Erkoreka, 1, 5.ª planta, 48007-Bilbao. Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correctamente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultados del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre. Los datos proporcionados se conservarán mientras dure el proceso selectivo, mientras esté vigente la bolsa de trabajo que pudiera crearse, en caso de acceder a ella, y mientras dure la relación de servicio que pudiera llegar a establecerse con esta Administración. La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de verificar los requisitos de acceso a la función pública y las circunstancias que determinen su desempeño en el proceso selectivo es el cumplimiento de un mandato legal contenido en el TREBEP (arts. 55 y 56). La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de gestionar las posibles bolsas de trabajo resultantes del proceso selectivo al que usted aspira es el ejercicio de un poder público recogido en el TREBEP (artículo 10). De no prestar el consentimiento para el tratamiento de sus datos basado en los antedichos motivos, no será posible la participación en el correspondiente proceso selectivo. La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones durante el proceso selectivo es su consentimiento expreso a tal efecto. La participación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supeditadas a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono. Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nombre y apellidos, DNI, domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos. Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el consentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.